

HONDAKINAK - BERRERABILPENA



Hondakinen sorrera murrizteko, hiru arau aplikatu behar dira: Murriztu, Berrerabili, eta Birziklatu.



Ezagutzen al duzu zer esan nahi duten hitz horiek:

- ➔ Murriztea
- ➔ Berrerabiltzea
- ➔ Birziklatzea

Adibide baten bidez adieraziko al zenuke zein den **Berrerabiltzea** eta **Birziklatzearen** arteko desberdintasuna?

Nire etxean, erabiltzen ez ditudan gauzekin zer egiten dut?

Taula hau ondo behatu eta etxekeoen laguntzaz bete ezazu:

GAUZA	Dagokion edukiontzira eraman birziklatzeko	Berrerabili	Zabor poltsan sartu	Beste bati eman berrerabiltzeko
Jostailu puskatuta				
Nahi ez ditudan ipuinak				
Colacao potea				
Txikia dudan arropa				
Bizikleta zaharra				
Oinetakoak				
Pilak				



Etxean egindako taularen emaitzekin taula hau bete ezazu.

	Zenbat?
Edukiontzira birziklatzeko	
Berrerabili	
Zabor poltsara	



HONDAKINAK - BERRERABILPENA

Nolakoak izan dira emaitzak? Gauzak **berrerabiltzen** al dituzu bota beharrean edo berriak erosi beharrean?

Hainbat herrian, tresnak berrerabiltzeko aukerarik ez dago.

Azpeitian altzariak, etxeko tresna elektrikoak, zapatak konpontzeko edo liburuak jasotzeko lekurik ba al dago?



Azter dezagun gure herrian zenbat leku dauden konponketak egiteko.

Galdera honi erantzuteko ikasleek gelaka banaturik herriko auzoak behatuko dituzte ondorengo taulako galderak erantzunez edo ikasle bakoitzak etxean galdetuta auzoko informazioa jasoko duzue.

ESTABLEZIMENDUAK KONPONDU ETA BERRERABILTZEKO				
GAUZA	BAI	EZ	IZENA	AUZOA
ARROPA KONPONKETAK				
ETXETRESNA ELEKTRIKOAK				
ALTZARIAK ZAHARBERRITZEA				
OINETAKOAK				
ATERKIAK				
BIZIKLETAK				
ERLOJUAK				
LABANAK ZORROZTEKO				
GALTZERDIAK				
TAPIZTEGIAK				

Jaso dituzuen datuekin:

1. Nahiko konponketa leku al ditugu? _____
2. Zer modutako konponketa egiten dira gehien? _____
3. Aurrera begira, zerbait egin al dezake Udalak egoera hobetzeko? _____

4. Zuek zer proposatzen duzue? _____
